

# **EUOPAR BATASUNAK ELKARTASUNA INTERNAZIONALISTA**

## **KRIMINALIZATEN DARRAI**

### ***Aratz Estonba Iturriza***

2024ko urtarrilaren 19an Europar Batasuneko Kontseiluak 2024/385 Erabakia<sup>1</sup> eta honen garapenerako 2024/386 Erregelamendua<sup>2</sup> onartu zituen. Bertan neurri murriztaileak ezartzen dira Hamas eta Palestinako Yihad Islamikoaren ekintzak babestu, erraztu edo baimentzen dituztenen kontra.

Aipatu araudietan azaltzen diren neurriek izaera ekonomikoa dute oro har; Hamas eta Palestinako Yihad Islamikoarekin harremana omen duten norbanako eta pertsona juridikoen zerrenda osatu eta hauen funts eta baliabide ekonomikoak ibilgetzeko agindua eman die EBko Estatuei. Era berean edozein funts edo baliabide ekonomiko zerrendan azaltzen diren horiei bideratzea debekatzen du.

Erabaki hauek nazioarteko santzioak direlakoen baitan kokatu behar ditugu<sup>3</sup>. Espainiako Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioaren arabera, nazioarteko santzioak funtsezko elementu bihurtu dira gaur egungo nazioarteko harremanetan, eta nazioarteko bake eta segurtasunaren kontrako mehatxua diren Estatu, entitate ez estatal eta norbanakoen kontra ezartzen dira hauen jarrera moldatu, bere posizioa ahuldu eta jarduna baldintzatzeko asmoz.

Deigarria da nola aipatu Ministerioak, santzioen definizioan, aipatzen duen indarkeria armatuaren ordezko tresna direla; eta ezinbestean Clausewitz datorkigu burura esaten zuenean gerra ez dela politikaren jarraipena baizik, nahiz beste bitarteko batzuez baliatzen den<sup>4</sup>. Izan ere neurri hauek ezin baititugu bereizi XX. mende amaieratik hona AEBek lideratutako bloque imperialistan<sup>5</sup> garatutako politika antiterroristen testuingurutik.

1 <https://eur-lex.europa.eu/eli/dec/2024/385/oj>

2 [https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=OJ:L\\_202400386](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=OJ:L_202400386)

3 <https://www.exteriores.gob.es/es/PoliticaExterior/Paginas/SancionesInternacionales.aspx>

4 [https://eu.wikipedia.org/wiki/Karl\\_von\\_Clausewitz](https://eu.wikipedia.org/wiki/Karl_von_Clausewitz)

5 <https://thetricontinental.org/es/estudios-sobre-dilemas-contemporaneos-4-hiper-imperialismo/>

Are gehiago, 2024/385 Erabakiak zehazten du 2001eko abenduaren 27an Kontseiluak hartutako jarrera bateratuaren ondorio dela honako hau<sup>6</sup>. Orduan, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak terrorismoaren kontra finkatu zituen hainbat estrategia zehaztu ziren, zehazki terrorismoaren finantzaketaren kontrakoak. Eta orduan izan zen Hamas eta Palestinako Yihad Islamikoa Europar Batasuneko talde terroristen zerrendan sartu zituztela<sup>7</sup>.

XX. mendearen amaieran garatutako doctrina antiterroristak 2001. urtean izan zuen inflexio puntu. Urte bereko irailaren 11n Al Qaedak New Yorkeko Dorre Bikien kontra egindako erasoak bide eman zion 90eko hamarkada amaieratik garatzen hasia zen doctrina antiterrorista berriari. Kasu honetan, politika antiterrorista eta gerra bateratu egin ziren, eta Irak eta Afganistanen kontrako erasoak ahalbidetu zuten, besteren artean. Oso adibide garbia da imperialismoaren beharren araberako erabilera nolakoa izan daitekeen ikusteko; izan ere, AEBek hartu zuen aitzindaritza, eta ardatz atlantista berriro ere indartu eta legitimatzeko baliatu zuen. Mendebalde demokratikoak bestelako herrialde ez zibilizatuen kontra egiten zuen guda zela ulertarazi zen. Adibide hori ere argigarria da terrorismo kontzeptuaren erabilera agerian uzteko, AEBek osatutako erakunde terroristen zerrendan Iran ere sartu baitzuten.

Era berean, eskubide eta askatasun murrizketak areagotu egin ziren, ezagun egin ziren Abu Ghraib edo Guantanamoko tortura irudiak, hegaldi ezkutuak, behartutako desagerketak... Horiek guztiak lehenago ere gertatzen ziren; gerora, ordea, demokraziaren izenean egin ziren, jendartean zilegitasunik ez zuen etsai baten kontra. Hala, jendearen kontzientzieta txertatzen hasi ziren terrorismoaren kontrako salbuespenen onurak eta demokrazia burgesak babestearen beharra. Are gehiago, hainbat kasutan legalki babestutako salbuespenak bihurtu ziren batzuk.

Honek ikusarazi behar digu klase zapaltaileek zeinen tresna indartsua duten, beharrezko izatekotan edozein disidentzia mota deuseztatzeko, bestela esanda, indar korrelazioa bere alde jartzeko, modurik gordinenean. Horrenbestez, ezin da ezkutatu ideologiaren eremuan kokatzen dela terrorismoa zer den edo zer

---

6 <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A32001E0931&qid=1707841028245>

7 <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A32001R2580&qid=1707841028245>

ez den ezartzea. Ondorioz, borroka ideologikoak berebiziko garrantzia du hainbat borrokaren zilegitasuna eta babesa lortu ahal izateko.

Testuinguru honetan, Europar Batasuna AEBrekin lerratzen zen, beste behin ere. Finean, interes kapitalista berak dituztela (eta haien arteko balizko kontraesanak, bigarren mailakoak direla) agerian geratu zen, eta 2002an Kontseiluak Erabaki Markoa argitaratu zuen (2002/475/JAI). Bertan, terrorismoaren definizioa Estatu guztientzat finkatu eta 2002a amaitu baino lehen, haien legedietan terrorismoaren kontrako legedia berezia garatzea behartzen zituen.

Horren aurretik, Europar Batasunaren baitako sei estatuk soilik zuten terrorismoaren kontrako legedia berezia: Alemaniak, Espainiak, Frantziak, Italiak, Portugalek eta Erresuma Batuak, hauetan guzietan talde armatuen jarduna zen, eta legedia horixe hauen aurka egiteko garatu zela uler daiteke. Gainontzekoek delitu arrunt gisa zigortzen zitzuten “talde terroristek” egindako ekintzak. Kontseiluaren Erabaki Markoaren garapenean ikusi ahal izan genuen nola Estatuek ere bata bestearengandik ikasi eta tresna errepresiboak partekatzen dituzten bakoitzaren esperientziaren irakaspenak trukatuz; hala, laborategi errepresibo bilakatzen dituzte haien Estatuak eta borroka antiintsurrekzionalak.

Europar Batasunak emandako urratsak Estatuek izan zitzaketen muga legal burokratikoak arintzea ekarri zuen. Modu itsuan lerratzen iritzi publikoa terrorismoaren kontra eta demokrazia liberalen defentsan, eta, hori baliatuz, erakunde terroristen zerrendak osatu ziren. Tartean, Euskal Herriko Askapen Mugimenduko hamaika antolakunde zerrendatu ziren, baita munduko beste hainbat erakunde iraultzaile ere. Ondorioz, dagoeneko bazegoen jazarpen errepresiboa areagotu, eta disidentzien kontra aritzeko erraztasun handiagoak izan ziren (atxilotutakoak Estatuen artean entregatzeko erraztasunak, polizien jarduna Estatuen mugaz haraindi, Europol...)<sup>8</sup>.

Aipatutako zerrendak oraindik ere indarrean daude ikusi dugunez; bertan dago, adibidez, arestian aipatu talde palestinarretaz gain FPLP alderdia ere besteren artean. Eta ikusi dugunez funtzio politiko argia dute imperialismoaren statu

---

<sup>8</sup> <http://askapena.eus/node/3802>

qua mantentzeko, herrien arteko elkartasun internazionalistaren kontrako erasoa baita betean.

Europako Kontseiluaren 2024/385 Erabakian eta 2024/386 Erregelamenduan jasotzen diren neurrien artean, finantzazio iturriak moztearekin batera, hainbat salbuespen zehazten ditu oinarrizko beharrizanetara bideratutako funtsei dagokienez edo Nazio Batuek onartutako erakundeak finantzatzeari dagokionez (guztiak behar humanitarioak asetzera bideratua: GKE...). Hau erabat lotuta dago diskurso eta politika humanitarioen gailentzearekin eta edozein gatazkaren muin politikoa ezkutatu eta ezabatzearen asmoarekin.

Honekin batera, aztertu beharreko beste elementua da Erregelamenduaren 2. artikuloko 3. ataleko g eta h letratan zehaztutakoa. Artikuloaren atal honetan I Eranskinean zerrendatuko diren antolakunde eta norbanakoak sartzeko irizpideak finkatzen dira, eta letra horiek diotenaren arabera Hamas eta Palestinako Yihad Islamikoaren (edo haien harremana duen beste edozein antolakunderen) *“izanean, haien kontura, haiei lagunduz edo haien partetik indarkeria ekintza larriak bultzatu edo publikoki eragiten dituzten egintzak burutzen dituztenak”* (geurea da itzulpena) edo haiei *“babesa ematen”* (geurea da itzulpena) dieten norbanako edo antolakundeak zerrendan sartuko dira.

Aipatu azpiatalek diotena ikusita, nabarmen dezakegu nola gatazkaren muin politikoa agerian utzi eta dagokion eztabaidea askapen nazional eta sozialaren terminoetan ematea kriminalizatzea duela helburu araudi honek. “Palestinar erresistentzia” terminoa erabiltzea bera, arrazoi nahiko litzateke idatzitakoaren arabera, zerrendan sartua izateko. Araudi honek ahalbidetzen baitu hura terrorismo ez izendatzea edo bere borrokaren jatorria eta helburuak analizatu eta azaltzea, Europar Batasunaren Kontseiluak terrorismoari babes ematea edo indarkeria ekintza larriak bultzatzea egoztekо adierazpenok egin dituenari.

Honek, palestinar herria subjektu pasibo gisa kokatzen du eztabaidean, Israelen gehiegikeriak jasateagatik giza laguntza behar duen biktima gisa. Ez inondik inora, bere askatasuna erdiesteko borrokan ari den herri gisa. Horrela ulertu behar ditugu Josep Borrell Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko

goi-ordezkari eta Europako Batzordeko lehendakariordearen adierazpenak AEBei Israeli armak igortzeari uzteko eskatzean<sup>9</sup>.

Honek badu, gainera, bere ifrentzua, Europar Batasuneko eremuan edozein elkartasun internazionalista kriminalizatzeko orubea finkatzen baitu. Urritik hona hamaika izan dira ilegalizazio mehatxupean dauden antolakundeak, debekatutako mobilizazioak eta zigortutako lagunak. Batzuk zerrendatzearren:

- Urtarrilaren 25ean Amichai Chikli Israelgo Diaspora-Auzien eta Antisemitismoa Borrokatzeko ministroak, José Manuel Albares Spainiako Kanpo ministroari gutun bat bidali zion, preso palestinarrekiko elkartasunez jarduten duen Samidoun sarea; Masar Badil, Palestinako Bide Iraultzailearen Aldeko Mugimendua; eta Palestinaren Askapenerako Herri Frontea (PFLP, ingelesez) legez kanpo uzteko eskatu zion<sup>10</sup>.
- Azaroaren 2an Alemaniako gobernuak Samidoun sarea legez kanpo utzi eta disobaltu zuen<sup>11</sup>.
- Palestinari elkartasuna adierazteko manifestazioen debekua Estatu Frantsesean eta Alemanian “ordena publikoaren kontrako mehatxua” direla argudiatuta<sup>12</sup>.
- Pirinio Atlantikoetako Prefeturak Palestinaren alde antolatutako hainbat mobilizazio debekatu ditu<sup>13</sup>.
- Ertzantzak zigor prozedurak abiatu ditu futbol zelaietan Palestinako bandera erakusteagatik<sup>14</sup>, eta Palestinarekin elkartasuna adierazteko mobilizazioak ere erasotu ditu<sup>15</sup>.

Dinamika honek guztiak, elkartasun politikoa ekiditeko helburu argia du, esan bezala. Honekin, gatazkaren erroa zein den azalerazi eta eztabaida dagokion

9 [https://www.youtube.com/watch?v=XFUb\\_-FbVg0](https://www.youtube.com/watch?v=XFUb_-FbVg0)

10 <https://www.argia.eus/albistea/samidoun-sarea-legez-kanpo-utz-dezala-eskatu-diote-sionistek-espaniako-gobernuari>

11 <https://samidoun.net/es/2023/11/el-gobierno-aleman-ilegaliza-y-disuelve-la-red-internacional-de-solidaridad-con-los-presos-politicos-samidoun/>

12 <https://gedar.eus/aktualitatea/palestinari-elkartasuna-emateko-mobilizazioak-debekatu-ditzte-frantzian-eta-alemanian/>

13 [https://www.berria.eus/euskal-herria/palestinaren-aldeko-bi-manifestazio-debekatu-ditu-prefeturak\\_234479\\_102.html](https://www.berria.eus/euskal-herria/palestinaren-aldeko-bi-manifestazio-debekatu-ditu-prefeturak_234479_102.html)

14 <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/deportes/2023/10/16/ertzaintza-multara-aficionado-eibar-mostro-7389584.html>

15 <https://irutxulo.hitza.eus/2024/01/12/ozen-salatu-dute-erakundeen-eta-israelen-arte-konplizitatea/>

terminoetan eman dadila eragozten du, modu honetan izan daitekeen gatazkaren gainditze justu oro baztertuz, huraxe baketzena mugatz.

AEBek gidatutako bloke imperialistak Palestina zapalduta behar du, eta honetarako eskura dituen bitarteko guztiak erabiliko ditu. Hala, pentsa dezakegu egoera bat non autodeterminazio eskubideaz hitz egitea ere kriminalizatua izan daitekeen.

Euskal herrian, 2024ko otsailaren 23an

## **LA UNIÓN EUROPEA CONTINUA CRIMINALIZANDO LA SOLIDARIDAD INTERNACIONALISTA**

El 19 de enero de 2024, el Consejo de la Unión Europea aprobó la Decisión 2024/385<sup>16</sup> y su Reglamento de desarrollo 2024/386<sup>17</sup>. En estas disposiciones se recogen diversas medidas restrictivas contra quienes apoyen, faciliten o apoyen las acciones de Hamás y Yihad Islámica Palestina.

Las medidas recogidas en dichos textos en su mayoría son de carácter económico; se hace una relación de personas físicas y jurídicas que presuntamente están relacionadas con Hamás y la Yihad Islámica Palestina y se ordena a los Estados de la UE que inmobilicen los fondos y recursos económicos. Asimismo, prohíbe que se destinen fondos o recursos económicos a las personas físicas y jurídicas enumeradas en la lista.

Las resoluciones de la UE aquí analizadas deben situarse en el marco de las sanciones internacionales<sup>18</sup>. Tal y como establece el Ministerio de Asuntos Exteriores, Unión Europea y Cooperación, las sanciones internacionales son un elemento esencial en las relaciones internacionales de hoy día, y son impuestas a fin de debilitar la posición y condicionar la actividad de Estados, entidades no estatales e individuos que suponen una amenaza contra la paz y seguridad internacional.

Llama la atención como dicho Ministerio define las sanciones como sustitutas de la violencia armada, lo que necesariamente nos lleva a pensar en Clausewitz cuando afirmaba que la guerra no es más que la continuación de la política, si bien por otros medios<sup>19</sup>. Y es que no podemos desvincular estas medidas, de la política antiterrorista desarrollada por el bloque imperialista liderado por EEUU<sup>20</sup> desde finales del siglo XX.

Ahondando en este aspecto, la Decisión 2024/385 especifica que la misma es consecuencia de la posición común tomada por el Consejo el 27 de diciembre

16 <https://eur-lex.europa.eu/eli/dec/2024/385/oj>

17 [https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=OJ:L\\_202400386](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=OJ:L_202400386)

18 <https://www.exteriores.gob.es/es/PoliticaExterior/Paginas/SancionesInternacionales.aspx>

19 [https://eu.wikipedia.org/wiki/Karl\\_von\\_Clausewitz](https://eu.wikipedia.org/wiki/Karl_von_Clausewitz)

20 <https://thetricontinental.org/es/estudios-sobre-dilemas-contemporaneos-4-hiper-imperialismo/>

de 2021<sup>21</sup>. Entonces, se concretaron diversas estrategias establecidas por el Consejo de Seguridad de las Naciones Unidas, más concretamente las relativas a ir contra la financiación del terrorismo. Fue entonces cuando añadieron a Hamás y a la Yihad Islámica palestina a la lista de organizaciones terroristas<sup>22</sup>.

La doctrina antiterrorista desarrollada a finales del siglo XX. tuvo su punto de inflexión el año 2001. El ataque perpetrado por Al Qaeda el 11 de septiembre de ese mismo año contra las Torres Gemelas, dio pie a la nueva doctrina antiterrorista que había venido gestándose desde finales de la década de los 90. En este caso, la política antiterrorista y la guerra se fusionaron, dando pie a los ataques contra Irak y Afganistan, entre otros. Es un claro ejemplo de la utilización por parte del imperialismo en base a sus necesidades, puesto que bajo la dirección de EEUU se reforzó y legitimó el eje atlantista. Este también es un claro ejemplo de la utilización interesada del concepto de terrorismo, puesto que EEUU agregó a Irán en su lista de organizaciones terroristas.

A su vez, se agravó la vulneración y merma de derechos y libertades, fue entonces cuando se conocieron los casos de tortura en Abu Ghraib o Guantánamo, los vuelos secretos, las desapariciones forzadas... Si bien, todo esto ya venía ocurriendo de antes, esta vez estos actos se llevaron a cabo en nombre de la democracia y contra un enemigo carente de legitimidad en la sociedad. Así, se fue introduciendo la conciencia de los beneficios de las excepciones en la lucha contra el terrorismo y la necesidad de defender las democracias burguesas. Es más, ciertas excepciones adquirieron rango legal.

Esto nos debe hacer ser conscientes del poderoso instrumento con que cuenta la clase opresora, pudiendo eliminar de esta manera todo tipo de disidencia en caso de ser necesario; dicho de otra manera, de inclinar a su favor la correlación de fuerzas existente.

En este contexto, la Unión Europea se alineó claramente con EEUU una vez más y el Consejo publicó una Decisión Marco el año 2002 (2002/475/JAI), en la misma se establece una definición común para todos los Estados miembros y se establece la obligación para todos ellos de desarrollar una legislación

---

21 <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A32001E0931&qid=1707841028245>

22 <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A32001R2580&qid=1707841028245>

específica contra el terrorismo. Al fin y al cabo comparten intereses capitalistas (y las contradicciones que puedan tener entre sí, son secundarias).

Previo a esto, sólo seis Estados contaban con una legislación especial antiterrorista: Alemania, España, Francia, Italia, Portugal y Reino Unido, todos ellos con presencia de grupos armados contra los cuales se había desarrollado una legislación antiterrorista específica. El resto castigaba como delitos comunes los actos de “grupos terroristas”. En el desarrollo de esta Decisión Marco del Consejo pudimos ver como los Estados aprenden unos de los otros y comparten instrumentos represivos así como enseñanzas; de esta manera es como podemos concluir que los Estados y sus guerras antiinsurrecionales se convierten en laboratorios represivos.

Los pasos dados por la UE supuso relajar los límites legales burocráticos que pudiesen tener los Estados. La opinión pública se alineó ciegamente en contra del terrorismo y en defensa de la democracia liberal, y aprovechando dicha coyuntura se configuraron listas de organizaciones terroristas. En esta lista se incluyeron diversas organizaciones del Movimiento de Liberación Nacional Vasco así como diversas organizaciones revolucionarias de otras partes del mundo. Así, se incrementó la represión ya existente, y se facilitó la actuación contra las disidencias (facilidades de entrega de detenidos entre Estados, actuación policial más allá de las fronteras propias, Europol...)<sup>23</sup>.

Como ya hemos visto, las listas mencionadas siguen vigentes, y se encuentra, por ejemplo, además de las organizaciones palestinas ya mencionadas, el FPLP. Asimismo, hemos visto como dichas listas cumplen con la función de mantener el statu quo del imperialismo, al suponer éstas un claro ataque contra la solidaridad internacionalista entre pueblos.

Entre las medidas que se recogen en la Decisión 2024/385 y el Reglamento 2024/386 del Consejo de Europa, además de restringir los medios de financiación, se establecen ciertas excepciones respecto a los fondos destinados a necesidades básicas o respecto a la financiación de organizaciones auspiciadas por Naciones Unidas (todas ellas destinadas a cubrir necesidades humanitarias: ONG...). Esto está directamente relacionado

---

23 <http://askapena.eus/node/3802>

con la promoción de discursos y políticas humanitarias y con el objetivo de ocultar y eliminar la raíz política de cualquier conflicto.

Otro elemento a analizar es lo especificado en las letras g y h del apartado 3 del artículo 2 del Reglamento. En este apartado se fijan los criterios para la inclusión de organizaciones e individuos en la lista del Anexo I; y según lo prescrito en dichas letras, se incluirán en la lista aquellos individuos y organizaciones “*que inciten o provoquen públicamente graves actos de violencia por parte de, junto con, en nombre de, por cuenta de o en apoyo de*” Hamás y la Yihad Islámica Palestina.

Visto lo establecido en estos preceptos, podemos concluir que dicha reglamentación tiene como objetivo criminalizar cualquier intento de poner de relieve la raíz política del conflicto y de dar un debate desde la perspectiva de la liberación nacional y social. La propia utilización del término “resistencia palestina” podría ser razón suficiente, según lo establecido en el texto, para ser incluido en la mencionada lista. Y es que la reglamentación aquí analizada, permite que no calificar la misma como terrorismo o analizar y explicar la raíz y objetivos de su lucha sea argumentado por el Consejo de la Unión Europea como apoyo al terrorismo o como incitación a la realización de graves actos de violencia.

Esto situa al pueblo palestino como sujeto pasivo del debate, como víctima de los abusos de Israel necesitada de ayuda humanitaria. En absoluto como un pueblo en lucha en pos de su liberación. Es así como debemos entender las manifestaciones de Josep Borrell, Alto representante de la Unión para Asuntos Exteriores y Política de Seguridad, y vicepresidente de la Comisión Europea, cuando solicitaba a EEUU que dejase de exportar armas a Israel<sup>24</sup>.

Esto, además, sienta una base para que cualquier expresión de solidaridad internacionalista pueda ser criminalizada en el ámbito de la Unión Europea. Desde octubre hasta ahora han sido diversas las organizaciones bajo amenaza de ilegalización, las movilizaciones prohibidas y las personas sancionadas. Por enumerar algunos casos:

24 [https://www.youtube.com/watch?v=XFUb\\_-FbVg0](https://www.youtube.com/watch?v=XFUb_-FbVg0)

- El 25 de enero, Amichai Chikli, ministro israelí de la Diáspora y de Lucha contra el Antisemitismo, remitió una carta al ministro de Asuntos Exteriores español José Manuel Albares solicitando la ilegalización de: la red de solidaridad con los presos políticos palestinos Samidoun; del Movimiento Ruta Revolucionaria Alternativa Palestina, Masar Badil; y del Frente de Liberación Popular de Palestina (PFLP en inglés)<sup>25</sup>.
- El 2 de noviembre el gobierno de Alemania ilegalizó y disolvió la red Samidoun<sup>26</sup>.
- Tanto el Estado francés como el alemán prohibieron numerosas manifestaciones en solidaridad con Palestina argumentando que son “una amenaza contra el orden público”<sup>27</sup>.
- La Prefectura del Pirineo Atlántico ha prohibido diversas manifestaciones en solidaridad con Palestina<sup>28</sup>.
- La ertzantza ha iniciado varios procedimientos sancionadores por mostrar la bandera Palestina en los campos de fútbol<sup>29</sup>, y ha cargado contra movilizaciones en solidaridad con Palestina<sup>30</sup>.

Tal y como ha quedado dicho, toda esta dinámica tiene el claro objetivo de impedir la solidaridad política. Así se impide aflorar la raíz del conflicto político y desarrollar el debate en los términos adecuados, rechazando cualquier opción para una superación justa del conflicto, limitando la misma a la pacificación.

El bloque imperialista liderado por EEUU necesita a Palestina oprimida, y para ello utilizará todos los medios a su alcance. Así, podemos pensar en un escenario en el que incluso hablar del derecho de autodeterminación puede ser criminalizado.

---

25 <https://www.argia.eus/albistea/samidoun-sarea-legez-kanpo-utz-dezala-eskatu-diote-sionistek-espaniako-gobernuari>

26 <https://samidoun.net/es/2023/11/el-gobierno-aleman-ilegaliza-y-disuelve-la-red-internacional-de-solidaridad-con-los-presos-politicos-samidoun/>

27 <https://gedar.eus/aktualitatea/palestinari-elkartasuna-emateko-mobilizazioak-debekatu-dituzte-frantzian-eta-alemanian/>

28 [https://www.berria.eus/euskal-herria/palestinaren-aldeko-bi-manifestazio-debekatu-ditu-prefeturak\\_234479\\_102.html](https://www.berria.eus/euskal-herria/palestinaren-aldeko-bi-manifestazio-debekatu-ditu-prefeturak_234479_102.html)

29 <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/deportes/2023/10/16/ertzaintza-multara-aficionado-eibar-mostro-7389584.html>

30 <https://irutxulo.hitza.eus/2024/01/12/ozen-salatu-dute-erakundeen-eta-israelen-arte-konplizitatea/>

Euskal Herria, a 23 de febrero de 2024

Aratz Estonba Iturriza